

B2B2 Hizkuntza-eskakizuna

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA		Iraupena
Irakurmen-proba	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: gutxienez bi testu eta bi ariketa. • <u>Ezaugarriak</u> Testuak luzera desberdinekoak eta era askotarikoak izango dira. Testuen luzera guztira: 800 hitz gehienez Gutxienez 10 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean. <u>Ariketa motak</u>: aukera anitzeko galderak, loturak egin (ideiak/izenburuak/paragrafoak lotu), hutsuneak bete (cloze testa, esaldiak txertatu...), testua ordenatu eta abar. 	30 min
Idazmen-proba	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: Bi ariketa, gai eta diskurtso-tipologia askotarikoak. • <u>Ezaugarriak</u>: <u>1. ariketa</u>: gutxienez 125 hitz idatzi beharko dira. Zerbaiten berri eman, eskaera egin, argibideak/informazioa eman edo helarazteko mezu elektroniko, gutun, bilera-deia... <u>2. ariketa</u>: gutxienez 125 hitz idatzi beharko dira. Interesak, erreakzioak, iritzia, informazioa eman/eskatu/egiaztatzeko idazkia. 	75 min

AHOZKO AZTERKETA		Iraupena
Entzumen-proba	Entzumena mintzamenarekin batera ebaluatuko da, berariazko entzumen-probarik egin gabe.	Mintzamen-probak irauten duena.
Mintzamen-proba	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: Saio bakoitzean bi azterketari arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Lehenengo ariketa egiteko, aldez aurretik gai bana prestatuko dute, bakoitzak bere aldetik. Bikoteak osatzeko azterketari nahikorik ez badago, bakarrik geratu den azterketariak aztertzaile batekin egingo du bigarren ariketa. • <u>Ezaugarriak</u>: <ul style="list-style-type: none"> <u>0. Aurkezpena</u>: (Ez da ebaluatuko). Ariketei ekin baino lehen, azterketariek izen-abizenak eta NAN zenbakia esan beharko dituzte. <u>1. ariketa</u>: (Bakarriketa. Gai bati buruzko iritzia eman). Aldez aurretik prestatutako gai bat azaldu –iritzia eman– eta beste azterketariari entzundako azalpenari buruz aztertzaileak galdetutakoari erantzun. Euskarria: azterketari bakoitzak gai bat, hari buruzko argazkiak+informazio laburra eta galdera zehatz batzuk azalpena bideratzeko. Denbora: 3 min gaiaz hitz egiteko eta minutu bat aztertzailearen galderei erantzuteko. Azterketari batek bukatzen duenean, besteak ekingo dio. <u>2. ariketa</u>: (Bat-bateko elkarrizketa). Argazki bidez, gai bati buruzko hainbat aukera/egoera. Adostasun/akordio batera iritsi beharreko egoera bat aurkeztuko du aztertzaileak. Helburua: argumentatu, negoziatu, iritzia trukatu. Euskarria: fitxa bakarra azterketari biei. Gai/egoera bat + argazki bidez, hari buruzko zenbait aukera/egoera. Denbora: 1 min fitxa begiratzeko. 6 min bien artean elkarrizketan jarduteko. <p>Adierazten diren denborak gutxi gorabeherakoak dira. Edonola ere, aztertzaileek erabakiko dute azterketak zenbat iraungo duen.</p>	30 min (10 min gaia prestatzeko dira)